

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Herritarren Segurtasunaren Saileko Udaltzaingoaren Zerbitzuan 39 udaltzain lanpostu betetzeko lan-eskaintza publikoa onestea

2019ko martxoaren 1ean egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasunaren Saileko Udaltzaingoaren Zerbitzuan 39 udaltzain lanpostu betetzeko lan-eskaintza publikoaren deialdia onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 70. artikulua —urriaren 30eko 5/2015 Legea— xedatzen duenez, “Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diru-izendapena egonda, langile berriak sartzeko beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili behar da; horretarako, beharrezkoa izango da [...] hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea”. Prozesu horietan, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak errespetatuko dira, baita aipatutako legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoak ere.

Ildo horretatik, Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 23. artikuluan xedatzen du, “Administrazio Publikoetako langileekin bete ezin diren giza baliabideak, aurrekontu-izendapena dutenak, lan eskaintza publikoaren bidez beteko direla”.

Bestalde, abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuak, Toki Administrazioa osatzen duten erakundeen zerbitzura dauden udaltzainen erretiro-adina murrizteko koefizientea ezartzen duenak, honakoa ezartzen du udaltzainen birjartze-tasari buruzko bigarren xedapen iragankorrean: 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 165. xedapen gehigarrian xedatzen denarekin bat eta hori aplikatuz, birjartze-tasa gehigarriak erretiro aurreraturako eskabidea aurkezten den unetik izango du ondorioa. Interesdunak administrazioari jakinarazi beharko dio modalitate hori baliatu nahi duela urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuko buruak 2019ko otsailaren 15ean sinatutako txostenean jasota dagoenez, egun hutsik dauden lanpostua 32 dira, eta, horiei, izapidetze-fasean dauden beste 7 gehitu behar zaizkie. Horietatik guztietatik 15ek derrigortasun-data iraungita dute.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37. artikuluan xedatutakoa betetzeko, arauan agindutako bilerak egin dira udaleko sindikatu-atalekin, eta egin beharreko txostenak igorri dira.

Erabaki da

- Lan-eskaintza publikoaren bidez Herritarren Segurtasunaren Saileko Udaltzaingoaren Zerbitzuan bete nahi diren 39 udaltzain lanpostuak eskaintzea. Ezaugarri hauek dituzte: Udaltzaingoko oinarrizko eskalako C2 (D) eta C1 (C) azpitaldeak; kategoria: agenteak (6002D edo 6003C); titulazioa: 200 (eskola graduatua, LH-1 edo baliokidea, edo Z03 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Z04 Erdi Mailako Lanbide Heziketa) edo 300 (Goi mailako Batxilerra, LH-II, III. mailako lanbide modulua edo baliokideak, edo Z00 Batxilergoa edo Z02 Goi mailako Lanbide Heziketa); gida-baimenak: CB 08: B eta CB 09: A; hizkuntza eskakizuna: 2.a, eta horietako hamabostek (15) derrigortasun data iraungia dute; destino-osagarria: 19; berariazko osagarria: 500; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 02.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 4an

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkaria
JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA